

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktua ekoizteko behar ditugun funtsezko baliabideak hiru taldetan sailkatzen dira.

Lehenik, produktua sortu ahal izateko lehengaiak behar ditugu. Zehazki tela ekologikoa (PET: Kiroleko arropa/ sandalientzat eta koloretako tela natural birziklatua) eta sandalien zola ekoizteko erabiliko dugun kortxo (kortxo hau sagardotegietako kortxo berrerabiliz, birziklaguneetako kortxo erositaz, etb lortuko dugu).

Bigarrenik, produktua aurrera eramateko behar beharrezkoak dira josteko eta bordatzeko makinak. Horiek merkatuan eskuratuko ditugu lising bidez. Zehazki eskuratuko ditugun makinak, Brother markako hiru INNOVIS M280D izango dira.

Azkenik, produktua etxeetara iristarazteko *Correos* enpresaren garraio zerbitzu nazional baita internazionala ere erabiliko ditugu. Bidalketa kostuak Espainiar estatu mailan 4-5€ bitartekoak izango dira. Internazionalak, ordea, 12-13€ artekoak.

Funtsezko baliabideez gain beste hainbat ondare ere hartu ditugu kontuan:

- Baliabide fisikoak,
  - Produktuak fabrikatzeko instalazioak (kasu honetan, Lezon kokatuta dagoen lokal bat)
  - Sistema informatikoa (Produktuak saltzeko erabiliko dugun online-denda).
  
- Baliabide intelektualak beharrezkoak dira:
  - Markak: Roots Organic Brand
  - Ezagutza: Kontratutako langileen ezagutza
  - Patenteak: Gure produktuak gauzatzeko erabili ditugun teknikak patentatzea.
  - Egile-eskubideak: Diseinu konkretuen eskubideak
  - Bezeroen datu-baseak: Produktua erosi eta bidali ahal izateko bezeroek online-dendan eman dizkiguten datuak.